

Apirilera bitarteko kultur eskaintzaz gozatzeko bi bonu izango dira aukeran

Lehendabiziko aldiz, Tolosako ikuskizun eszenikoek eta zuzeneko proiektzioek bonu bana izango dute; kultur etxean eskuragarri daude dagoeneko kulturzale txartelak // **2**



Tolosako kultur etxean eman zuten atzo egitarauaren berri. ITZEA URKIZU

Ikazne ipuineko pertsonaiaren panpina egin dute

Euskararen erabilera zabaltzeko eta zaintzeko helburuz, Ikaztegiako eskolako haurren familietan sartuko da Ikazne panpina // **3**



TOLOSA GORENGOEN MAILAN

Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko talde nagusiek denboraldi «ezin hobea» egin dute; pasa den urtean lortu zuten lehen mailara igotzea, eta bertan mantentzea lortu dute, Espainiako txapelketetako emaitzei esker // **7**

IMANOL GARCIA LANDA

2020ko mahai egutegiak eskuragarri.

Pasa zaitezte hauen bila



San Esteban, 20 Tolosa 20400

*Egin zure erosketak Ibarrran
abenduaren 9tik urtarrilaren 3ra*
Sariak:



Zozketa eguna: Urtarrilak 3, 20:00etan.



*Sariak ez dira inoiz eskudirutan emango

Informazio batzarra egingo du TOPAk, larunbatean, azken ikerketaz

Besteak beste, Asuncion klinikako hainbat mediku homologaziorik gabe ari direla salatu du koordinakundeak

Leyre Carrasco

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundeko kideek informazio batzarra deitu dute datorren larunbaterako, 12:00etan, Tolosako kultur etxean. Duela bi aste iragarri zuten moduan, bi gai nagusi jorratuko dituzte: Osakidetzak Tolosaldearekin 35 urteotan pilatutako zorra eta, bestalde, klinikako espezialisten inguruan egin duten ikerketa. Besteak beste, mediku zenbait homologaziorik gabe ari direla salatu dute.

Batzarraren berri emateko egindako prentsaurrekoan, TOPAko kideek azaldu dute Asuncioneke egoera «asko aldatzen» dela, eta horrek zerikusia duela Asuncion klinikak eta Osasun Sailak duten hitzarmenarekin.

TOPA koordinakundeak ia hamardada darama, Tolosaldeko herritarrek jaso beharreko osasun-arreta gainerako eskualdeetako herritarrek jasotzen dutenaren antzekoa izateko eskaera eginez.

Kultura oparitzeko bi bono izango dira aukeran, Tolosan

Urtarrietik apirilera bitarteko kultur eskaintza aurkeztu dute; ikuskizun eszenikoek eta zuzeneko proiektzioek bonu bana izango dute, estreinakoz.

Itzea Urkizu Arsuaga

Urte hasiera tentagarri dator Tolosan, kultur zaleentzat. Udalak eta kultur eragileek aurkeztu dute urtarrietik apirilera bitarteko egitaraua eta, horrekin batera, Kulturzale txartel berriaren eskaintza ere iragarri dute. Estreinakoz, bi txartel izango dira aukeran: ikuskizun eszenikoei dagokiena bata, eta zuzeneko proiektzioei dagokiena bestea.

Egitaraua besapean duela, kultura oparitzera deitu ditu herritarrek, Izarne Iglesias Tolosako Udalako Kultura, Gazteria eta Jaiak Saileko zinegotziak, kultur kontsumoa sustatzeko eta indartzeko duten nahiari fokua jarritz.

Hain justu, helburu horretara iristeko tresnetako bat da kultur txartela, eta bonu berriko jarduerak datorren urtarilaren 3an hasiko dira. Ikuskizun eszenikoei dagokien Kulturzale txartelak Leidor aretoko zortzi emanalditarako eskaintza izango du, eta 50 euro ordaindu beharko da bonua; sarre-ak banan-banan erosita baino 45 euro gutxiago. Opera eta balletaren zuzeneko proiektzioetarako



Egitarauan parte hartuko duten zenbait eragile elkartziren, Tolosako kultur etxeko aurkezpenean. I. URKIZU ARSUAGA

bonuak, berriz, hiru saiotarako balioko du, 18 euroan.

Nola bata, hala bestea, eskuragarri daude dagoeneko, Tolosako kultur etxean, txartelarekin ordainduz.

LEIDOR, ZENTZUMEN GUZTIEI ZABALIK

Neguko programazioa aurkezteko hitzorduan parte hartu zuten, Leidor aretoan ariko diren hainbat artistak.

Besteak beste, Xabier Zeberio tolosarrak datorren urtarilaren 3ko emanaldia «oso berezia» izango dela iragarri zuen. Alos Quartet taldearen 20. urteurrena ospatzeko hiru saioetako bat izango da Tolosakoa eta, urtemugak eskatzen duenaren neurria, hainbat gonbidatu izango dituzte lagun, ibilbidearen errepasoa egiteko nahiz *Lau* azken diskoaren aurkezpene egiteko: «Urteotan gurekin lan egin duen jendea izango da, adibidez, Oreka TX, Izaro, Aukeran, Amaia Elizaran dantzari tolosarra edo Gorka Hermosa akordeoi jotzailea».

Haatik dantza konpainia ere bertaratuko da Leidorrera, urtarilaren 24an, *Errimak bi oinetan*

ikuskizuna taularatuz. Nerea Sorondo tolosarrak eta Unai Elizasuk azaldu zuten, «lehenengo sorpresa alde batera utzi, eta beste zerbait bilatu dugu, emanaldirako bertsoak sortuz eta bertso-larien bat-bateko bertso ezagunak musikatuz».

Dantzatik antzerkira, Txalo produktzioak konpainiaren *Ene ba!* antzezlanak ikusgai izango da urtarilaren 31n. Bost aktorek gorpuztuko dute «jendearen miseriekin barre egiteko» komedia frantziarra.

Erlauntzak ere jendearen eguneroko miseriak ditu hizpide, ezkondu aurreko agur festa batetik abiatuta. Iazko uztailen estreinatutaz geroztik, arrakastaz dihardute, eta martxoan izango dira Leidorren.

Azkenik, *Kamerata Euskadivarius*-ek Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena izango du ardatz. Urte osoa baliatuko dute, Gipuzkoan barrena Beethovenen 9 sinfoniak eskaintzeko, eta lehenengo Tolosan izango da, kontzertu didaktiko batean.

NEGUKO KULTUR EGITARAUA

Ikuskizun eszenikoak

Urtarrilak 3. Alos Quartet, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Urtarrilak 11. *Goazen 6.0* musika, 16:00etan eta 18:00etan, Leidorren.
Urtarrilak 17. Benito Lertxundi, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Urtarrilak 18. Ataria bertso jaialdia, 18:00etan, Leidorren.
Urtarrilak 24. Haatik konpainiaren *Errimak bi oinetan*, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Urtarrilak 31. *Ene ba!* antzezlan, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Otsailak 1. Ene Kantak, 16:30ean, Leidorren.
Otsailak 7. *Circle of trust*, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Otsailak 21. Ostiral meheko jaialdia, 22:30ean, Leidorren.
Otsailak 28. *Faemino y Cansado* 17 veces, 20:30ean, Leidorren.
Martxoak 6. *Erlauntza*, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).

Martxoak 7. *Hanse eta Gretel* haur antzerkia, 18:00etan, Topic-en.
Martxoak 13. *Kamerata Euskadivarius* ikuskizuna, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Martxoak 14. Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen *Bizi dantza*, Leidorren. Ordua zehazteke.
Martxoak 20. *Zaldi urdina* antzezlan, 20:30ean, Leidorren (**BONUA**).
Martxoak 27. *El Rey Leon* 2 musika, Leidorren. Ordua zehazteko.
Apirilak 3. Tolosako Musika Bandaren kontzertua, Topic-en.
Apirilak 5. Irrien lagunak eta Aguraingo orkestra, Leidorren.

Zuzeneko proiektzioak

Urtarrilak 29. *La Bohème* opera, 20:45ean, Leidorren (**BONUA**).
Martxoak 17. *Fidelio* opera, 20:45ean, Leidorren (**BONUA**).
Apirilak 1. *El lago de los cisnes* balleta, 20:45ean, Leidorren (**BONUA**).

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria. Tolosako sagardotegi batean, txotx denboraldirako, langile behar da zerbitzari eta sukaldari lanak egiteko. Interesa dutenek dei dezatela 660 65 43 17 telefonora.

Zaintza lanak eta etxeko lanak.

Adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat

behar dugu, Tolosa erdigunean. As-telehenetik larunbatera, 40 ordu. Interesatuak deitu 600 56 20 73 telefonoz zerbait.

Ileapaintzailea. Tolosako Irrika ileapaindegia esperintziadun ileapaintzailea behar du, arratsaldetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interesatuak, deitu 943 50 84 93 telefonora.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

Alegiako kultura batzordeak laguntza behar du

Herritarren laguntza Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera, errege magoen desfilea eta San Silvestre krosa aurrera eraman ahal izateko eskatu dute

Erredakzioa Alegia

Alegiako Kultura batzordeak Gabonetako hainbat ekitaldiren antolakuntzarako herritarren laguntza behar du. Eskaintza zabaldua prestatu dute, baina hainbat ekitaldi behar bezala aurrera atera ahal izateko behar du laguntza hori.

Boluntarioen lana kultura batzordeko kideei laguntzeko izango da. Abenduaren 24ko Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera eta urtarrilaren 5eko errege magoen desfilean behar dute laguntza. Gauzak horrela, laguntzeko borondatea duten herritar horiek kultur etxean eman dezakete izena, eta horretarako azken eguna, bihar, hilak 13 izango da.

10:00etatik 13:00etara eta

15:00etatik 21:00etara eman daiteke izena kultur etxean. Bestela, kultura@alegia.eus helbide elektronikora ere idatzi daiteke edo 943 65 46 98 telefono zenbakira deitu.

Abenduaren 31n egingo den San Silvestre krosari begira ere, egoera antzekoa dela azpimarratu dute kultura batzordetik. «Ibilbideko bidegurutzeetan jartzeko jendea behar da, lasterketa modu seguruan egin ahal izateko. Laguntzeko prest daudenek Jubilatua, Iskiña, Hilario eta Errotatxo tabernetan edo kultur etxean eman dezakete izena», adierazi dute. Boluntario lana egin nahi dutenek hilaren 31 baino lehen egin beharko dute.

Batzordetik, eta alde zuzenean, «eskerrak» eman nahi dizkiete laguntzeko prest daudenei.

‘Euskaraz bizi ahal gara!’ Albizturren eta Baliarrainen

ALBIZTUR / BALIARRAIN // Herri-tarrak kontzientziazatzeko eta Tolosaldeko euskaltzaleak ahal duntzeko herriz herri *Euskaraz bizi ahal gara!* hitzaldia ematen ari dira Galtzaundi Euskara Taldeko kideak. Bihar Albizturren eta Baliarrainen ariko dira. Albizturren, Jexux Murua eta Ane Izagirrek 19:00etan udaletxean eskainiko dute hitzaldia, eta ordu berean, Baliarrainen, areto nagusian, Imanol Artola eta Jone Arrospideren esku egongo da hitzaldia.

Dokumentala eta gaztaina jatea kultur eskaintza bukatzeko

BALIARRAIN // Baliarraingo udazken kulturalari amaiera emango diote larunbatean. Lehenik, 18:00etan, *Aralar, mundua lekua den lurra* dokumentalaren aurkezpena izango dute, eta zuzendariak bertan izango dira azalpenak emateko. Ondoren, bertaratzeko direnak gaztaina jatea egingo dute Arkaitz elkarteak antolatuta.

Aniztasun afektibo sexuala lantzeko tailerra, gurasoentzat

ALEGIA // Alegiako Aralarpean Guraso Elkarteak eta Iturri Zahar Guraso Elkarteak elkarlanean antolatu dute tailerra. Aniztasun afektibo sexualaren inguruko sentsibilizazioa bideratu, eta guraso izateko bizi daitezkeen zalantza, kezka edota egoerak aztertzea izango da tailerraren muina. Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleek gurasoei zuzendutako tailerra da. Hilaren 17an, asteartean izango da, kultur etxean, 18:00etan. Pare bat orduko saioa aurreikusi dute.

Amaren alabak egunez aldatuta igandean izango da

AMEZKETA // Hilaren 14an, igandean, izango da Amaren Alabak taldearen kontzertua, Amezketa. Sei zuberotar emakumez osatua den taldea 12:00etan hasiko du kontzertua. Kultur etxeko areto nagusian izango da. Hainbat hizkuntzetako kantuak kantatuko dituzte koreografiarekin lagunduta, eszenografia xume batekin.



Maddi Muxika haurrak eraman zuen etxera lehen aldiz. ATARIA

Ikaznek gorputza du

Ikazne ipuineko pertsonaiak panpina du dagoeneko; herriko eskolako haurren familietan sartuko da Ikazne euskararen erabilera zabaldu eta zaintzeko

Eneritz Maiz Etxarri Ikaztegjeta

Euskararen Egunaren bueltan hartu du gorputza Ikazne pertsonaiak, Ikaztegjetan. Herriko Euskara Taldeak hilabeteak eman ditu lanketa egiten herriko haurren euskararen erabilerak kezkaturak.

Pasa den ikasturtean, herriko idazlea den Iñaki Zubeldiak idatzitako *Ikazne* ipuina iritsi zitzaion eskolara. Ipuina irakurri eta landu zuten, haur bakoitzak, Ikazne panpina marraztuz. Aurretik, ordea, pertsonaiak berak egin die harrera. Ipuin kontaketa bidez, lehenik eta behin, Ikazneren ipuina entzun ahal izan zuten ikasle, guraso eta gerturatu ziren herritarrek. Eta ezustekoa zegoen bertan. Ikazne panpina.

Lehen egonaldia Maddi Muxika ikaslearen etxean egin zuen. Esku zabalik hartu zuen panpina ipuina entzun ostean: «Oso pozik eta eskertuta zegoen, eta momentu guztian alboan izan zuen. Ipuina kontatu zion, euskal kultura erakutsi zion eta euskal produktuak eman zizkion dastatzeko ipuina kontuan hartuta»,

azaldu du Sonia Plaza amak. «Etxean mahaian aulki batean eserita jarri zuen gurekin batera afaltzeko. Jolasean artzain-andrez jantzi zuen, eta oherakoan ohea ere egin zion lo goxo egiteko», argitu du Plazak. Motza egin zitzaion Ikazneren bisita Maddi Muxikari. Hurrengo egunean eskolan entregatu behar izan baitzuen beste ikasle batek etxera eramateko, «triste jarri zen gehiago nahi zuelako». Gurasoak eskertuta agertu dira: «Oso ideia polita eta ona iruditu zaigu Ikaznerena».

Ikazne etxetik etxe ibiliko da, eta haur bakoitzaren eta honen familiaren esperientzia ezberdinak biziko ditu ilusioz. Baina bere helburu nagusia, euskaraz biziaraztea eta familiak euskara erabiltzera bultzatzea izango ditu.

IPUIN KONTAKETA, GAUR

Ikazneren ipuin kontaketa ostean, gaur, ikasleek beste ipuin batez gozatzeko aukera izango dute. Ane Gebara ipuin kontalaria, 16:30ean, *Oihaneko tira-birak* kontakutako die liburutegian.

Amezketan Larrondoko larrealdirako izen ematea zabalik dago

Behiak, zaldiak, behorrak, ahuntzak eta ardiak Larrondon larreratu nahi dituenak, hilaren 30a baino lehen udaletxean izena eman beharko du

E. Maiz Amezketa

Amezketako Udalak Larrondon behiak, zaldiak, behorrak, ahuntzak eta ardiak larreratzeko epea zabaldu du. 2020ko maiatzaren 1ean ireki eta 2021eko martxoaren 31n amaituko da.

Behorrak larreratzeko epea Pilarika egunean, urriaren 12an irekiko da, eta 2021eko martxoaren 31n amaituko da. Izen ematea udaletxeko bulegoan egin behar da hilaren 30a baino lehen: ardi eta ahuntz bakoitzeko euro bat, eta behiak eta behorrak 10 euro ordaindu beharko da buruko. «Foru aldundiak horrela eskatzen du, larreratzeko eskaeren jakinarazpenak abenduaren 31 baino lehen egin behar direla diru laguntza jasotzeko eskubiderik ez galtzeko», azaldu dute

udaletik. Deialdi hau ganaduzale guztiei eta baita udazkenean ganaduak larreratzen dituzten ganaduzaleei egiten diete.

«Garbi gogorazi eta jakinarazi nahi da nahiz eta ganadua udazkenean larreratu, udaletxean orain eman behar dela izena, ordainketarekin batera», azpimarratu dute, eta neurri hori jarraipen zehatza egingo zaiola eta agindu hori betetzen ez bada Amezketa Udalak bere neurriak hartuko dituela gaineratu dute. Larrondora ezingo da zuzenean ganadurik eraman, hau da, lehenik, Enirio-Aralarko larreetara igo beharko dira.

Bukatzeko, eskaera bat ere egin dute: «Landatuta dagoen landare gaztea eta itxiturak errespetatu, landareengan kalterik ez sortzeko».



Gabon eskean aterako dira abenduaren 24an, herri bat baino gehiagotan. J.M.



Herrietako kaleak kolorez apainduta daude, Gabon argiak eta apaingarriak jarrita. I.U.

Gabonen bueltakoak

Tolosaldeko herri guztietan egitarau oparoak antolatu dituzte eragile ezberdinek; Olentzero eta Mari Domingiren eta errege magoez gain, bada zertaz gozatua inguruan

GABONETAKO EGITARAUAK

ABALTZISKETA

Abenduak 22. 09:00. Guraso elkarteak antolatuta, plazatik aterako dira kantuan aritzeko.

ADUNA

Abenduak 16. 18:30. Loatzos musika eskolako emanaldia, elizan.

Abenduak 22. 09:15. Gabon kantuen erronda, eskolatik aterata, Basopeta guraso elkarteak antolatuta. 13:30. Frontoian Olentzero eta Mari Domingi etorrera jaia.

Abenduak 27. 12:00. Elordi lokalean *Tumba, Orro egiten besterik ez zekien lehoia* antzerki lana izango da umeentzat.

Abenduak 30. 11:30. Elordi lokalean *Liburu bat mundu* batipuin kontaketa, musika, eskulanak eta jolasak, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzat, Mestiza elkartearen eskutik.

Urtarrilak 3. 11:00. Elordi lokalean, Tantalipuin Buruarin taldearen eskutik, 4 urtetik gorako umeentzat, buruarin tailerra. Gaia: Inauteriak.

ALBITZUR

Abenduak 24. 19:00. Olentzeroren etorrera, plazan.

ALEGIA

Abenduak 18. 18:30. Loatzos musika eskolako emanaldia, kultur etxean.

Abenduak 22. 18:30. Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzen kontzertua.

Abenduak 24. 11:00. Txintzarri Abesbatza kantari ibiliko da kaleetan zehar. 16:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera. 18:00. Eskola aurrean itxarongo diegu.

Abenduak 25. 11:15. Txintzarri Abesbatza kantuan meza nagusia.

Abenduak 26 eta 27. Gabonetako pilota topaketak Elorri pilotalekuan.

Abenduak 30. Gabonetako pilota topaketen finalak, ikaztegietan.

Abenduak 31. 16:00. X. San Silvestre Krosa, plazan.

Urtarrilak 1. 11:15. Txintzarri Abesbatza kantuan meza nagusia. 12:15. Udal hautetsiek mandarinak eta intxaurrak banatuko dituzte, plazan.

Urtarrilak 2. Txuri-urdira irteera, Iturri Zahar guraso elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 5. 18:00. Errege magoen desfilea, Orendaingo bidetik.

ALKIZA

Abenduak 22. 19:00. Gabonetako kontzertua Fagus Alkiza interpretazio zentroan.

Abenduak 24. 09:00. Bereburupe guraso elkarteak antolatuta, Olentzeroren etorrera plazan. Ondoren, bi taldetan banatuta eskea, bata Arana bailarara eta bestea Azaldegira. Eguerdian, bazkaria egingo dute Alkizako ostatuan. Bazkalostean, herriko kaskoan ibiliko dira eskean.

ALTZO

Abenduak 13. 18:30. Loatzos musika eskolako emanaldia, Batzarre-muñon.

Abenduak 24. 09:30. Eguberri eskean aterako dira, Altzo Azpitik.

AMASA-VILLABONA

Abenduak 17an eta 19an. 18:30. Loatzos musika eskolaren Eguberrietako kontzertua, zineman.

Abenduak 22. 12:00. Villabonako Je-

susen Bihotza elizan Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzen emanaldia.

Abenduak 24. Olentzero eta basoko izakiei ongietorria, Etxeondoko parkean. Amalur plazara jaitziko dira, musikariek eta dantzariak lagunduta. 12:00. Trikipotea Jota eta Lierniren eskutik Malkar plazatik abiatuta. 16:15. Gabon kantujira herrikoia plazatik abiatuta. 18:00. Olentzeroren etorrera Etxeondoko parkean.

Urtarrilak 5. 18:45. Errege Magoen desfilea Amasatik abiatuko da.

AMEZKETA

Abenduak 20. 17:00–21:30. Frontenis txapelketa. Afari merienda Gaztelekuan, norberak ekarrita. Pelikula Gaztelekuan.

Abenduak 23. 09:30. DBH1 eta 2ko entzatat irteera Iruñako Saltingera. Prezioa: 15 euro.

Abenduak 24. 09:30. Zumadi eskolako haurrak Ugartetik aterako dira Gabon kantak abesteko. 12:30. Herriaren sarreran Olentzerorekin topotzeko dute. 13:30. Haurrentzako bazkaria Zazpi Iturri elkartearen Ondoren, Olentzerok txokolatezko irudi bat banatuko die haurrei.

Abenduak 26. 11:30. Tor magoaren ikuskizuna, kultur etxeko aretoan.

Abenduak 27. 11:00–20:15. DBH3 eta 4, eta batxilergoko 1. urteko entzatat irteera Mitologik Scpae Roome-ra. Prezioa: 16 euro.

Abenduak 30. 10:30. Eskulanak Gaztelekuan.

Urtarrilak 2. 16:30. Altxorren bila, Fernando amezketarren plazan.

Urtarrilak 3. 09:45–14:15. Olaberriako kartingera irteera. Prezioa: 15 euro.

Urtarrilak 4. 10:30–12:30 eta 16:30–

19:00. Puzgarriak, Larrunarri pilotalekuan.

ANOETA

Abenduak 20. Goizean. San Tomas Eguna dela eta ikastolako DBH4ko ikasleek txorizo pintxoak salduko dituzte. 18:30. Loatzos Musika Eskolako Gabon kontzertua, elizan.

Abenduak 22. 12:30. Kukuak Kantuz abesbatzaren emanaldia, elizan.

Abenduak 23. 09:00–13:00. Udalpilota eskolako topaketa, frontoian.

Abenduak 24. Goizean. Ikastolako ikasleak kantari aterako dira, baita gazteak eta Kukuak Kantuz taldekoak ere. 18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, oinez iritsiko dira Isastitik. Ilbilbidea: Isasti–Solkorre–Igarabide–plaza. Loatzos Musika Eskolak eta Anoetako Anitz Dantza Taldeak hartuko dute parte. Ondoren, Olentzerok eta Mari Domingi gozokiak banatuko dituzte.

Abenduak 25. 12:00. Anoetako txistulari taldearen kalejira.

Abenduak 26. 16:00–18:00. Estanpazio tailerra Gaztelekuan, LH5etik DBH1era arteko entzatat.

Abenduak 27. 17:00. Haur antzerkia auditorioan: *Egunon sikiera!* Zirika Zirkus taldearen eskutik. 19:00. Gabonetako pala txapelketa frontoian, Kuku pilota elkartearen antolatuta.

Abenduak 28. 16:30. Eguberrietako mus txapelketa berezia. Izen ematea 15:30etik 16:30era frontoian.

Abenduak 30. 10:30. Kutxa Ekogune haur parkera irteera.

Urtarrilak 2. 16:00–18:00. Estanpazio tailerra Gaztelekuan, DBH2tik DBH4ra arteko entzatat.

Urtarrilak 3. 18:00. *Margolaria* doku-

mentala eta solasaldi musikatua. Sarrera: 3 euro.

Urtarrilak 4. 17:00. Txiki Txef tailerra Gaztelekuan. Txokolatezko arroak egingo dituzte 5 eta 11 urte bitartekoek. DBHko gazteak aldiz, Iruñeko Saltingera joango dira, Irurako Gaztelekuarekin elkarlanean.

Urtarrilak 5. 18:30. Errege magoen desfilea. Basagain menditik irtengo dira eta oinez joango dira San Juan kaltetik plazara, herriko txistulariek alaiturik. Bertan gozokiak banatuko dituzte.

Urtarrilak 6. 12:00. Anoetako txistulari taldearen kalejira.

ASTEASU

Abenduak 22. 12:00. Harri-jasotzaileen Txapelketa izango da (200 kiloko harriak).

Abenduak 23. 16:30. *Itzal Titerela* borategia, Zurrunka teatroaren eskutik, udaletxean. 5–10 urte bitarteko entzatat.

Abenduak 24. 12:00. Gabon eskeko kantua herrian zehar eta Olentzero 12:00etan frontoian.

Abenduak 26. 16:30. Zinema euskaraz, udaletxean: *Elkanoren lehen mundu bira*. Filma amaitzean, Kukute guraso elkarteak merienda emango du.

Abenduak 27. 19:00. Zinema, udaletxean: *Dantza*. Amaieran, egileekin solasaldia.

Abenduak 28. 11:00–13:30 eta 15:30–20:00. Drone-ak erabiltzeko ikastaroa frontoian, AMC enpresaren eskutik. 12 eta 18 urte bitarteko entzatat.

Abenduak 29. 11:00. IV. Kros Solidarioa. Izen ematea 11:00etan, haurren

irteera 11:30ean, gazteena 11:40ean eta helduak 12:00etan.

Abenduak 30. 16:30. Zinema euskaraz: *Smallfoot*. Filma amaitzean, Kukute guraso elkarteak merienda emango du. 18:00. *Pride* (zimena), txokolate jatea eta hainbat dinamika Erratzutz taldeak antolatuta.

Abenduak 31. 17:00. Urrezko Aizkora frontoian.

Urtarrilak 3. 17:00. Ipuin kontaketa, udaletxean: *Ahobete jolas*.

Urtarrilak 5. 19:00. Errege magoen desfilea.

BALIARRAIN

Abenduak 24. 10:30. Kantuan atera-ko dira plazatik. 13:30. Bazkaria tabernan. 15:00. Berriro kantatzera. 17:00. Olentzeroren etorrera, San Juan Itur-
rin.

BELAUNTZA

Abenduak 24. 15:00. Kantuan atera-ko dira. 18:00. Olentzerok ekarritako opariak irekiko dituzte.
*Ludoteka zerbitzua: abenduak 23, 26, 27, 30, 31 eta urtarrilak 2 eta 3. 10:00etatik 13:00etara.

BERASTEGI

Abenduak 20. 10:00. Muñagorri eskolako jaialdia. Beasti Guraso Elkartek hamaiketako eskainiko du, eta Olentzero eta Mari Domingiren bisita izango dute ondoren.
Abenduak 24. 09:00. Plazan elkar-tuko dira kantuan ateratzeko, Guraso Elkartek antolatuta. 15:00. Arratsaldean ere kantatzera aterako dira plazatik, Urepele Elkartek antolatuta. 18:15. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herriko plazan.
Abenduak 27. 19:00. Presoen aldeko elkarretaratzea plazan. 19:30. Pintxopotea.
Abenduak 31. 18:00. XVI. Urte Zahar Krosa, Urepele Elkartearen eskutik.
Urtarrilak 5. 18:30. Errege magoak plazara iritsiko dira.

BERROBI

Abenduak 24. 10:30. Herriko kaleak kantuz alaitzeko jira, plazatik abiatuta. Ondoren, hamaiketako. 17:00. Begi-urdin gaztegunean ohiko bilketa. 18:30. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera: gaztetxoek egindako dantza-ongietorria eta oparien banaketa.
Urtarrilak 5. 16:00. Begi-Urdin Gaztegunean ohiko bilketa. 19:00. Errege Magoen etorrera eta opari banaketa.

BIDANIA-GOIAITZ

Abenduak 24. 09:00. Goiaztik abiatuta, egun guztian zehar abesten ibiliko dira. 18:30. Goiatzera Olentzero eta Mari Domingi iritsiko dira eta frontoian ongi etorria egingo zaie.
Abenduak 29. 12:00. Organo kontzertua Loreto Aramendi organo jotzailearen eskutik, San Bartolome elizan.

Urtarrilak 5. 18:00. Errege magoak Hernio aldetik plazara iritsiko dira, kaletan zehar ibili ondoren, ongi etorria egingo zaie frontoian. Bertan animaliak, jaiotza, taloak... egongo dira.

ELDUAIN

Abenduak 24. 14:30. Kantuan ibiliko dira etxez etxe, plazatik abiatuta.

GAZTELU

Abenduak 24. 08:30. Abestera aterako dira etxez etxe. 18:30. Olentzeroren etorrera.

HERNIALDE

Abenduak 24. 08:30. Herriko plazan elkartuko dira eta Bentara jaitsita ibilbidea hasiko dute. 09:00. Behetik gora hasiko dira kantatzen etxez etxe, herriko trikitilariak alaiturik. 14:30. Bazkaria herriko elkartean. 15:30. Berriro aterako dira gelditzen diren gainontzeko etxeak bisitatuz. Iluntzean, Olentzerori ongi etorria egingo diote herriko gazteek, zuzien eta trikitilarien laguntzaz. Frontoira iristean, opari eta gozoki banaketa egin, eta Olentzero agurtuko dute.

IBARRA

Abenduak 19. 18:30. Loatzo musika eskolako emanaldia, elizan.
Abenduak 23. Donostiako txiki par-
kera eguneko irteera, LH1-2koentz-
tat, Gaztezuloren eskutik.
Abenduak 26. Gaztezuloko pareta margotu eta afaria Sendi Ekintza el-
kartean, DBH1-2koentzat, Gaztezu-
loren eskutik.
Abenduak 27. 17:00-19:00. Bigarren eskuko azoka plazan, LH5-6koen eskutik, Gaztezulok antolatuta. 18:00. *Alu-Ulu* antzerki foroa kultur etxean, DBH3tik aurrerakoentzat, Gaztezuloren eskutik.
Abenduak 28. 11:30-13:30. Bigarren eskuko azoka Laboral plazan, LH5-6koen eskutik, Gaztezulok antolatu-
ta. Gazte gaua, DBH3koentzat, Gaz-
tezuloren eskutik.
Abenduak 29. Gazte gaua, DBH3ko-
entzat, Gaztezuloren eskutik.
Urtarrilak 2. Iruñeko Salting-era eguneko irteera, LH3-4koentzat, Gaztezuloren eskutik.
Urtarrilak 3. *Asterix eta Obelix eta edabe magikoaren sekretua* kultur etxean, LH osoarentzat, Gaztezuloren eskutik, eta gazte gaua, DBH4koentzat, Gaztezuloren eskutik.
Urtarrilak 4. Gazte gaua, DBH4ko-
entzat, Gaztezuloren eskutik.

IKAZTEGIETA

Abenduak 24. 08:30. Herriko talde ezberdinak kantuan ibiliko dira. 18:00. Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

IRURA

Abenduak 17. 18:30. Loatzo musika eskolako Gabonetako emanaldia, elizan.



Abenduak 23. 11:00-13:00. Marrazki lehiaketa Eguzkitxokoen HH eta LH1ekoentzat. 17:00-19:00. Marrazki tailerra LH2tik LH6koak arte.
Abenduak 24. 09:30. Irurako ikastolakoak kalez kale Gabonetako abestiak abesten. Ondoren, hamaiketako plazan. 12:30. Mari Domingiren etorrera plazara. 18:00. Olentzero eta bere lagunak etorrera.
Abenduak 26. 11:00-13:00 eta 16:00-19:00. Puzgarrien parkea frontoian. 18:00. Bonboigintza tailerra gazte eta helduentzat.
Abenduak 27. 11:00-13:00. *Royal Lcyng* delakoarekin egindako gailen apainketa ludotekan 6 urtetik 10 urte bitartekoentzat.
Abenduak 29. 17:30. *Nahia eta Neo* txotxongilo ikuskizuna kulturunean.
Abenduak 30. 17:30. Asier Kidam-en *Aroa eta Mirariak* magia ikuskizuna kulturgunean.
Abenduak 31. Loatzora igoera eta hamaiketako gazte asanbladaren eskutik.
Urtarrilak 2. 10:30-13:30. Muralgintzako lehen saioa Gaztelekuan. 17:30. Potxi eta Patxin pailazoen *Zirkoko izarrak* ikuskizuna kulturgunean.
Urtarrilak 3. 10:30-13:30. Muralgintzako bigarren saioa Gaztelekuan. 17:30. Marrazki lehiaketako sari banaketa eta merienda Eguzkitxokoen.
Urtarrilak 4. 12:00. Iruñeko Salting-era irteera Gaztelekuko eskutik. 19:00. *Bakean dagoenari bakean utzi* bakarrikzeta plazako ekitaldi aretoan.
Urtarrilak 5. 17:00. Txokolate jatea. 18:00. Errege magoen desfilea.

LARRAUL

Abenduak 19. 19:15. Larraulgo I. Mikro-Ipuin Lehiaketako sari banaketa Liburutegian. Sariak banatzera Wins-ton Copeland magoa joango da.
Abenduak 20. 17:30-19:30. Gabon karaokea eta abenduaren 24rako entsegua liburutegian.
Abenduak 24. 09:00. Larraulgo plazan geratuko dira herritarrek baserriz baserri kantari ateratzeko.

LIZARTZA

Abenduak 19. 18:30. Dantzarako nola jantzi ikastaroa, udaletxean, Otsolar Dantza Taldeak antolatuta.
Abenduak 24. 18:00. Olentzeroren jaitsiera, Lizartzako udalaren eskutik.

Abenduak 28. 17:00. Haur zinema udaletxean, udalaren eskutik.
Abenduak 31. 17:00. Haur zinema udaletxean, udalaren eskutik.
Urtarrilak 5. 19:00. Erregeen etorrera, herritarrek antolatuta.

ORENDAIN

Abenduak 24. 09:00. Herriko plazan bilduko dira kantu eskeari hasiera emateko. 12:00. Eltxo elkartean hamaiketako, eta kantuan jarraituko dute. 14:30. Bazkaria Eltxo elkartean.

OREXA

Abenduak 13. 19:00. Presoei gutunak idatziko dizkiete.
Abenduak 24. 16:00. Kantari aterako dira etxez etxe.
Urtarrilak 6. 16:00. Errege magoak etxez etxe ibiliko dira.

TOLOSA

Abenduaren 16tik 23ra. 17:30-20:10. Olentzaroren Basoko bisitak, sarre-
rak aurrez eskuratuta, Elozegi parke-
an.
Abenduak 16tik otsailaren 27ra. 10:00-13:00/16:00-19:00. *Giù La Maschera* arakusketa, Topic zentro-
an.
Abenduak 18. 18:00. *Tolosaizarrez beteta*, kontzertuak Foruen etorbi-
dean eta Nafarroa etorbidean.
Abenduak 19. 18:00. *Tolosaizarrez beteta*, kontzertuak Korreo kalean eta Berdura plazan.
Abenduak 20tik otsailaren 7ra. 10:00-13:00/16:00-19:00. Emaus taldearen *Origen* arakusketa, Topic zentroko anbiguan.
Abenduak 20. 11:30. *Tolosaizarrez beteta*, kontzertuak Zezen plaza au-
rrean. 18:00. *Tolosaizarrez beteta*, kontzertuak Rondilla kalean, Emaku-
meon plazan. 18:30. Tolosako musika eskolako ikasleen eta irakasleen el-
kartasun kontzertua, Topic-en.
Abenduak 21. Goizez, Gabonetako azoka berezia, Trianguloa plazan, Alondegia plazan eta Plaza Zaharre-
an.
Abenduak 22. 17:00. Haur zinema, Leidorren: *Mr. Link: jatorri galdia*.
Abenduak 23. 11:30. *Tolosaizarrez beteta*, kontzertuak Kale Nagusian. 18:00. *Tolosaizarrez beteta*, kontzer-
tuak Emeterio Arrese plazan.
Abenduak 24. 18:00. Plaza Zaharretik irtenda, Mari Domingiren eta Olentzeroren etorrera.
Abenduak 26, 27 eta 28. 16:00-18:00. Txotxongiloen tailerra, 6 urte-
tik gorako haurrentzat.
Abenduak 26tik 31ra, eta urtarriaren 2tik 4ra. 09:00-20:00. Gabone-
tako Shanti areto futbol txapelketa, Usabal kiroldegian.
Abenduak 26. 17:00. Haur zinema, Leidor aretoan: *La oveja Shaun: gran jaguedon*. 17:00. Wiltxapelketa, Topagunean.
Abenduak 27. Egun osoan, 24 ordu-
ko areto futbol txapelketa, Uzturpe

frontoian. Topaguneak bestalde, Do-
nostia txangoa egingo du, 12 eta 17
urte bitarteko gazteekin. 12:15. Bu-
ruhandi eta erraldioen ikastaroko
haurren kalejira: Lopez Mendizabal-
Gernikako Arbola. 18:00. *Tolosaizar-
rrez beteta*, kontzertuak Lopez
Mendizabal plazaren eta Laskoain
kalearen artean. 18:00. Buruhandi eta
erraldioen ikastaroko haurren kalejira:
Alde Zaharra.

Abenduak 28. Arratsalde, telazko poltsen tailerra, Topagunean, 12 eta 17
urte bitarteko gazteentzat. 18:00-
21:00. Gabonetako haur parkea, Zer-
kausian. 18:30. Elkartasunezko Topic:
*Zergatik bizi da basoan Txanogorri-
txuren amona?* emanaldia, Topic
zentroko aretoan. Sarrera janariaren
truke.

Abenduak 29. 10:00-14:00/17:00-
20:00. Gabonetako haur parkea, Zer-
kausian. 17:00. Haur zinema, Leidor
aretoan: *Asto erregea*. 17:30-19:30.
Urte amaierako festa, Topagunean.
Abenduak 30. 10:00-14:00/17:00-
20:00. Gabonetako haur parkea, Zer-
kausian.

Abenduak 31. 10:00-13:00. Gabone-
tako haur parkea, Zerkausian. 15:30.
Samaniego-Orixek antolatuta, El-
kartasun krosa, Zerkausitik abiatuta.
Urtarrilak 2. 17:00. Haur zinema, Lei-
dor aretoan: *Frozen 2*.
Urtarrilak 3. 12:15. Buruhandi eta
erraldioen ikastaroko haurren kalejira:
Alde Zaharra. 18:00. Buruhandi eta
erraldioen ikastaroko haurren kalejira:
Zumalakarregi-Nafarroa etorbidea.
Urtarrilak 4. 17:00. Haur zinema, Lei-
dor aretoan: *Frozen 2*.
Urtarrilak 5. 09:00-14:00. Gabone-
tako Shanti areto futbol txapelketako
finala, Usabal kiroldegian. 18:30. Erre-
geen desfilearen irteera, Plaza Zaha-
rretik abiatuta.

ZIZURKIL

Abenduak 16. 18:30. Loatzo musika eskolako emanaldia, goiko elizan.
Abenduak 19. 18:00. Elizpe erretira-
tuen elkarteak antolatuta txistorra
jatea.
Abenduak 22. Jostailu-trukea goize-
an zehar plazako estalpean, Aizton-
doko Denbora Bankuak antolatuta.
Abenduak 24. Goizean, San Millan
ikastetxeko umeek baserrietan
abestuko dute eta Pedro Mari Otaño
eta Zubimusu ikastolako umeek El-
barrena auzoa alaituko dute.
Ondoren, Urkamendi elkartean ha-
maiketako. 17:30. Urkamendi aldetik
etorriko dira Olentzero eta Mari Do-
mingi. Loatzo musika eskolako musi-
kariak lagunduta. Plazan Bukalai dan-
tza taldekoek eta Loatzo musika es-
kolakoek musika joko dute.
Abenduak 27. 19:00. Peppermint
Quartet taldearen eskutik kontzer-
tua Atxulondon.
Abenduak 31. Arratsaldean Urka-
mendi eta Zumbeltz elkarteek antola-
tutako urte zaharreko lasterketa.

Joxemi Salzar Tolosa

Karlos Linazasoro idazleak eta Elena Arrese margolariak *Hugoren gaua* ipuina argitaratu dute Xibarit argitaletxean, haur baten Eguberrietako gorabeherak jasoz, batek idatziz eta besteak marrazkien bidez. Bizitza osoa artearen munduan aritu bada ere, Elena Arreseren (Tolosa, 1966) lehen liburua da eta berarekin hitz egin dugu.

Nola sortu zen ipuina egitearen ideia?

Nire senarrak (Joseba Urretabizkaia) argazkiekin ilustratu nahi zuen Eguberrietako ipuin bat. Karlos Linazasoro idazle tolosarrari eskaini zion ideia. Ipuina idatzi zuen eta ez zekien nola sartu hor argazkiak, ezinezkoa iruditzen zitzaion. Ipuina pasa zidanean berehala ilustrazioak egiteko ideia asko etorri zitzaizkidan burura. Askok gustatu zitzaidan istorioa. Marrazkiren bat egin nuen eta asko gustatu zitzaion. Karlosi erakutsi eta hari ere bai. Orduan ilustrazio guztiak egiteari ekin nion.

Zenbat marrazki dira?

Eguberrietako ipuina eskatu zion Karlosi, inongo baldintzarik gabe, eta honek 25 esalditan idatzi zuen ipuina, banan bana zenbatuta. Esaldi bakoitzari marrazki bat egitea zela egokiena pentsatu nuen.

Edukia ez dugu ezagutzera emango, baina zertzelada batzuk eman al ditzakezu?

Eguberrietakoa izan arren, ez du zerikusirik bake eta maitasun ipuin batekin. Mendekua, justizia edo bihurrikeriatik gehiago dauka. Haur bat eta errege magoen arteko istorioa da. Tentsio atmosfera islatu nahi izan dut marrazkietan. Ipuinak interpretazio desberdinak bilatzeko aukera eman zidan. Bukaeran klik batek dena irekita uzten du, zuk nahi duzuna irudikatzen, pen-

«Eguberrietakoa izan arren, ez du zerikusirik bake eta maitasun ipuin batekin»

ELENA ARRESE MARGOLARIA

Haur baten Eguberrietako gorabeherak kontatzen dituen 'Hugoren gaua' ipuina egin dute Karlos Linazasoro idazleak eta Elena Arrese margolariak; abenduaren 20an aurkeztuko dute Tolosako udaletxean.



JOSEBA URRETABIZKAIA

tsatzeko. Horregatik ere gustatu zitzaidan.

Protagonistaz zerbait esan ditzakezu?

Hugo izeneko haur bat da. Marrazkietan Hugo guztiak desberdinak dira, eredu desberdinak hartu ditut. Irailetik azarora aritu naiz lanean honetan eta kalean zehar ikusten nituen adin horretako haurrak behatzen nituen gero marrazkietan islatzeko. Hauraren aurpegia edo espresioa ez da sekula ikusten marrazkietan, ezin da ezagutu. Haur zehatz bat ez dut agertu nahi izan, baizik eta haur neutrala. Gurasoak ere pare bat aldiz agertzen dira, baina desberdinak dira. Eta bere etxeak ere bai.

Eta non kokatu duzu istorioa?

Tolosan. Oso ipuin tolosarra da. Erosoena eta errazena zen niretzat, hemen bizi naizelako. Tolosako eraikin eta leku batzuk erraz identifika daitezke.

Norizuzenduta dago ipuina?

Adin guztietarako da. Eta bakoitzak irakurtzen duenaren bere interpretazioa egitea nahi nuke.

Zein teknika erabili duzu lan honetan?

Betidanik teknika mistoa erabili izan dut: arkatzak, argizaria,

akrilikoa, *collage*, paleta grafikoa... Hemen ere osagai desberdin asko erabili ditut, denak paporean eginak.

Zein izan da zure formakuntza?

Tolosar asko bezala, Matxin Labaien izan zen nire lehen irakaslea. Eskolapioetako Aita Ruizekin ere aritu nintzen, larunbat

«Tolosar asko bezala, Matxin Labaien izan zen nire lehen maisua. Hortik aurrera nire kontura aritu naiz»

goizetan doako klaseak ematen zizkigun. Eta handik aurrera nire kontura aritu naiz ikasten.

Orain arte zure margolanak ikusteko aukera izan dugu Tolosan bertan.

Bai, baina ez askotan. Pare bat erakusketa egin dut Aranburu jauregian, eta erakusketa kolektibo gehiagotan ere parte hartu izan dut, hemen eta kanpoan, eta behin Londonen ere bai.

Liburu bat egitearen lehen esperientzia izan al da?

Bai, liburu ilustratzaile gisa bai. Baina bizitza osoa artearen munduan daramat: Mitxoleta haur albumak eskuz margotzen, dekoraziorako muralak egiten... Azken hiru urte hauetan birziklatu egin naiz eta familiako enpresan lan egiteko formatzen

«Adin guztietarako da; bakoitzak irakurtzen duenaren bere interpretazioa egitea nahiko nuke»

aritu naiz, administrazioa eramateko. Baina margotzen jarraitzen dut eta hemendik aurrera pinturari denbora gehiago eskaintzeko asmoa daukat. Eta hortik aurrera zer egin ikusten joango naiz.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Goi mailako kirolariak

Espainiako Txapelketan maila handia erakutsi dute Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko kideek. Gorengo mailan lehiatzen diren klubaren artean, iaz lortutako lehen maila mantentzea lortu dute.

Imanol Garcia Landa Tolosa

Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko arloak emaitza bikainak lortu ditu aurtengo Espainiako txapelketetan, eta besteak beste, iaz lortutako lehen maila mantendu du. Lehen maila horretan 18 klub onenak daude, eta aurtengoan, gainera, bi modutara lortu dute kategoria mantentzea. Batetik, senior taldeak bere kabuz eutsi zion mailari, Espainiako Txapelketako sailkapen proban seigarren geratuz. Postu horrek gainera finala jokatzeko aukera eman zien eta bosgarren postua eskuratu zuten bertan Iratxe Martin, Anne Lezea, Saroi Eskisabel, Joane Zugasti eta Irati Xiaoyan Agirre gimnastek. Lehen mailan jarraitzeko beste aukera juniorrek lortu zuten.

Nerea Otaegi Tolosa CF-ko entrenatzaileak azaldu duenez, «juniorren lorpena izugarrikoa izan da. Izan ere, junior mailan beren lehen estatu mailako txapelketa izan da. Iaz infantil mailan Espainiako Txapelketan brontzezko domina lortu zuten, eta beste urtebetez, podiumean mantendu eta gainera zilarrezko domina eskuratzea nabarmentzekoa da». Hain justu, sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuten, eta ondoren, finalean ere bigarren izan ziren. Lehenengo hiru postuen barruan geratu zirenez, lehen mailan aritzeko lekua bermatu zuten Tolosa CF-arentzat.

Ismene Agirre, Ane Alustiza, Onintza Sukia, Aitane Goikoeitxe eta Mara Herrera gimnastek osatzen dute junior taldea. Hamalau eta hamahiru urte bitarte dituzte. Espainiako Txapelketako sailkapen orokorrean 50 talde inguruk parte hartu zuten, eta bi saio egin zituzten. Ismene Agirrek azaldu duenez, «lehenengo eguneko ariketa egin eta gero pozik aterakin. Hirugarren postuan sailkatu ginen, eta bigarren eguneko ariketaren ondoren bigarren postua lortu genuen». Lehenengo egunean konplikazio bat izan zuten, Mara Herrerrak gogora ekarri duenez: «Guk pentsatzen genuen dena ondo aterazela, baina entrenatzaileekin sofán eserita geundela ikusi genuen zintak korapiloa zuela, eta



Junior taldeko Mara Herrera, Onintza Sukia, Ane Alustiza, Aitane Goikoeitxe eta Ismene Agirre. ATARIA

horrek postu bat beherago geratzea eragin zigun».

Finalerako sei sailkatzen ziren eta hor ere zilarrezko domina lortu zuten. «Ez genuen espero horrelako emaitzarik lortzea. Lehenengo urtea zen maila honetan lehiatzen ginela. Bagenekien maila handia zegoela eta gure helburua zen gozatzea eta gure lana erakustea. Ez da izan denboraldi erraza, eta gure asmoa zen ondo pasatzea eta ahal genuen ondoen egitea», esan du Ane Alustizak. «Nahiko denboraldi gogorra izan da, berritasunak izan direlako taldean, baina bukaeran sentsazio onekin eta gustura bukatu dugu, eta amaiera polita eman diogu», esan du Onintza Sukiak.

Astean hiru egunetan entrenatzen dute, bakoitzean hiru ordu, eta horrez gain asteburuetan ere entrenamenduak edo lehiaketak izaten dituzte. «Lehiatzera joaten garenean erakusten duguna ariketa da, beraz ariketa da gehien entrenatzen duguna, behin eta berriz errepikatzen duguna», esan du Aitane Goikoeitxek. «Denboraldi guztian egin duzun lana bi minutu eta erdian erakutsi behar duzu, eta ez bada zuk nahi duzun bezala ateratzen, kolpea hartzen duzu. Baina horrela da gimnastika erritmikoa».

Denboraldian lortutakoa begiratzean, bost gimnastek entre-

natzaileen lana nabarmendu dute: «Azken finean beraiek dira lagundu digutenak, sariaren zati handi bat da beraiena, eta eskerak eman nahi dizkiegu hau guztia posible egiteagatik». Infantilen eta lehen mailakoen denboraldia «txalotzekoa» dela gaineratu dute, eta familiei zein babesleei eskerrak eman dizkiete beraien laguntzagatik.

BALANTZE <<EZIN HOBEA>>

Gorengo mailan dauden senior eta junior taldeko emaitzez gain, oinarritzko mailan dauden infantilek Espainiako Txapelketa irabazi dute. Aroa Zugasti, Ane Barandiaran, Maite Iturrioz, Ahetze Olano, Saioa Zeberio eta June Bengoetxea dira bertako partaideak eta beren lehen Espainiako Txapelketa izan da maila horretan. «Eskola mailatik haragoko lehen pausoa oinarritzko maila da», azaldu du Otaegik. «Egungo junior eta lehen mailako taldeak ere maila horretan izan ziren, eta Espainiako bakarkako eta taldekako txapelketatik dominak leporatu dituzte. 2012 urtea izan zen tolosarren lehen aldia maila horretako txapelketa batean».

Infantil taldeak irailaren 21ean izan zuen maila horretako lehen txapelketa eta ordudunik ez dira lehen postutik jaitsi. «Erronka handia izan da sei gimnasta hauekin egindako lana, guztiak gogo handiz aritu dira lanean,

gimnastak, entrenatzaileak eta familiak», esan du Otaegik. «Txikiak intentsitate handiz bizitu dituzte une guztiak eta emandako aurrerapausoak izugarriak izan dira».

Oinarritzko eta goi mailako taldeen emaitzak ikusita denboraldiko balantzea «ezin hobea» izan dela diote. «Izan ere, klubarentzat erronka handia izan da. Kontuan izan behar da, hasierak ez direla errazak, eta oinarritzko infantilak maila honetan berriak izanik lana bikoitza izan dela», esan du Sara Alonso entrenatzaileak. «Juniorrekin aurreko urteko emaitzak mantentzea zaila izan den arren, azkenean lortu da. Eta lehen mailako taldea izatea ohorea izanik, maila ematea zen helburu nagusia. Nola ez, beste behin lortu dute guztien

artearen, eta estatu mailan Tolosa CF lan onarekin lotzen da».

Bide batez, Alonsok seniorren dedikazioa nabarmendu du: «Aipatzekoa da gimnasta hauek beraien ikasketak entrenamenduekin bateratzen dituztela, unibertsitate ikasketak edota batxilergoan datorren ikasturteari begira beharrezko nota lortzeko ahaleginak eginez».

Txapelketetan lortutako emaitzez gain, lehen mailako taldeak Gipuzkoako Kirolgalan Gipuzkoarren Saria jaso berri du, herri bozketa bidez erabaki dena. «Sari honekin beraien esfortzua eta ibilbidea goraiatu da», esan dute klubetik. Bide batez eskerak eman diote Gipuzkoako Federazioari beste urte betez hautagai bezala izendatzeagatik, eta aldundiari mota horretako sariak antolatzeagatik. «Eta nola ez, gimnasta eta entrenatzaileei guztia emateagatik. Ohore bat da klubeko eredu izatea».

Gimnastika erritmikoan Tolosa CF klub ertaina da, 150 gimnasta inguru izanik. Oinarritzko zein gorengo mailak nazioartekoa deritzon mailan daude. «Kontuan izan behar da, nazioarteko mailan Tolosa CF izan dela hasi den azken gipuzkoar kluba. Ordutik izandako emaitzak oso onak izan dira, eta aurtengoak ez dira gutxiago izan. Tolosa herri txikia da, eta lan gogorra da maila honetako gimnastak egitea», esan du Otaegik. «Horrez gain, azpiegiturak ere badu eragina. Estatu mailan parte hartzen duten klubek baldintza duinagoak dituzte, eta guk hemen ez dugu behar adina toki».

ZUZENEAN

Irribarria-Rezusta vs Artola-Imaz

Binakako txapelketako partida

ABENDUAK 16 • ASTELEHENA
Tolosako Beotibartik 16:30ean hasita

ataria 107.6 fm
irratia www.ataria.eus



OSTEGUNA, 2019KO ABENDUAK 12
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 12

AGENDA

Deialdiak

Ikaztegieta. Oihaneko tira-birak Ane Gebara ipuin kontalariarekin, 16:30ean liburutegian.
Alegia. Maider Galarzaren ipuin kontaketa saioa 17:00etan, liburutegian.
Amasa-Villabona. Bizikleta eta baserritar jantzien bigarren eskuko azoka 18:00etan, Berdura plazan.
Irura. Irura 100 urte xarea ekimenaren barruan 18:00etatik 19:00etara argazki erakusketa, plazako herri-eskolako aretoan, eta Irura eta xarea lehen eta orain mahai ingurua, plaza-ko herri-eskolako aretoan
19:00etan Jesus Mari Arsuaga, Iñax Iturbe, Joxi Lopetegui eta Mikel Uzkudunekin.
Tolosa. Jan Tolosaldea sari banaketa 18:00etan Topic-en.
Tolosa. Olentzaroren Basoa ipuinaren aurkezpena 18:30ean, liburutegian.
Zizurkil. Mens sana in corpore sano mahai ingurua 19:00etan liburutegian. Artola (pilota), Perurena (herri kirolak), Errealeko neska futbolari bat (futbola). Kirola bai, baina burua ondo jantzita. Jon Ander Gorosperen gidaritzapean.
Tolosa. Parasitos 19:15ean Leidor antzokian.
Tolosa. Iker Iriarte Iribarren *Nola an-*

tolatzen da bertsolari txapelketa? Nork aukeratzeko ditugu gaiak? Zer puntuatzen da bertso saioetan? Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoan
Amasa-Villabona. Bruce Springsteen. Western Stars Gurea antzokian 20:00etan.
Lizartza. Otsabio kirol kluba eraberritzeko bilera 20:00etan udaletxean.
Alegia. Bakean dagoena bakean utzibakarritzeta 21:00etan Gaztetxean.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza.
11:00. Eutsi Goiari.
12:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.
21:00. Mestibull. Musika.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Ignacio Olarraaga Aranburu. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako zahar etxeetako langileek hilabeteko beste lanuzte bat egingo dutela iragarri zuten atzo; dagoeneko 149 greba egun egin dituzte ELA sindikatuko kideek

Greban jarraituko dute

Paulo Ostolaza Berria

Gipuzkoako Foru Aldundiko aterpean bildu ziren Gipuzkoako zahar etxeetako ELA sindikatuko hainbat langile atzo goizean, iragartzeko greban jarraituko dutela «beste erremediorik ez dutelako». Dagoeneko 149 greba egun egin dituzte, eta, gaurtik urtarilaren 10era bitartekoak gehituz gero, 179 izango dira. Gatazka konpontzeari dagokionez, diputazioaren «interesa falta» salatu dute: «Gero eta argiago dugu ez zaizkiela interesatzen ez emakume langileak, ez senideak, ezta erabiltzaileak ere». Aldundiko ordezkariak ez ziren agertu atzo ELAk deitutako bilerara, eta «ezkutatzeko ezer ez badute aurpegia emateko» eskatu diete sindikalistek.

Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia Euskadi Irratiko Faktoria saioan izan zen atzo. Mugimenduak egiteko prest dagoela adierazi zuen, eta negoziatzio mahaian eseri eta negoziatzeko eskatu zien sindikatu eta patronalei. Azaldu zuenez, ordea,



Tolosan astelehenean egin zuten mobilizazioa. ASIERIMAZ

«diputazioaren lehentasuna zahar etxeetan bizi direnen ongizatea da», eta horregatik eskatu dio Eusko Jaurlaritzari greba egunetako gutxiengo zerbitzuak %80ra igotzeko; aurrez ere %50etik %70era igo zituen, eta ELAk helegitea jarri zion erabakiari. Langileen eskari guztiak onartzeko asmorik ez duela ere gehitu zuen diputatu nagusiak: «Mugitzeko prest gaude, baina epe luzera ere begiratu behar da; eskariak onartuz gero, arazoa konponduko genuke epe laburrean, baina luzera ito egingo litzateke sistema».

ELA, sektoreko sindikatu nagusia —langileen %60 ordezkatzeko dituen—, joan den urteko urrian altxatu zen Olanok aipatutako negoziatzio mahaitik. Txomin Lasa ELAko kideak atzo beste behin ere gogorarazi zuen gutxienean bi baldintza ezarri zituztela bertan esertzeko: 2017. eta 2018. urteei dagozkien soldata gutxiago, eta sinatutako akordioa enpresa bakoitzak zigilatzea. Gainera, aldundiari egotzi zion sinetsarazi nahi izatea ELA mahaian esertzen ez delako dagoela gatazka.

LIZARDI

inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behea
Tolosa 943 65 11 22



110.000€

TOLOSA - Larramendi / VPO: Sukalde, egongela terrazarekin, logela eta bainugela. Garajea eta trastelekua.



99.500€

TOLOSA - Rondilla / Tasatua: Sukalde-egongela, logela eta bainugela.



230.260€

IBARRA - Arantzazuko Ama / Estrenatzeko pisua: 3logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela.